

Iraupeneko nekazaritza-ekonomia eta lurzoruaren narriadura

Unai Pascual Garcia de Azilu
Doktoretza-ikaslea. University of York

Hirugarren Munduko iraupeneko nekazaritza-ekonomiaren egiturazko ezaugarri sozioekonomikoen eta nekazaritzarako lurzoruaren narriaduraren artean erlazio estua dago. Artikulu honetan lotura horren azalpen koalitatiboa egiten dut, eta, horretarako, bi kontzeptu nagusi erabitzen ditut: 'Bizimodu jasangarria' eta 'inbertsio-pobrezia' alegia. Bi nozio horiek 'garapen ekonomiko jasangarri' orokorrigoaz hitz egitean oso kontuan hartu behar dira, batez ere, baliabide naturaletan oinarritzen den Hirugarren Munduko ekonomiaz ari izanez gero. Iraupeneko nekazarien arrazionalitate berezia ohiko teoria mikroekonomikoan erabiltzen den *homo economicus*-aren ideia hertsitik ezberdinduz, lurzoruaren narriadura aztertzeke abiapuntua izan behar dela argudiatzen dut.

There is a close link between the structural socio-economic characteristics of the peasant economic system found in the rural areas of Third World countries, and the degradation of one of its most fundamental natural capital, the agricultural soil. Here I undertake a qualitative description of the link by incorporating the "sustainable livelihood" and the "investment-poverty" concepts. I argue that both ideas should be taken into account when we talk about the broader concept of sustainable development applied to the natural resource based economies of the Third World. I also defend the viewpoint that peasant rationality, as different from the usual microeconomic notion of *homo economicus*, should be the crux of any economic analysis of soil degradation in a peasant economic context.

Sarrera*

Artikulu honek Hirugarren Munduko landa-eremuetako nekazalgoa du aztergaia. Beraz, beste landatar kategorien artean aurki daitezkeen lurrik gabeko laborariez, artzainez, artisauez, arrantzaleez, komunitate Indigenez, edota errefuxiatuez, besteak beste, ez dut hitzik aipatuko, horrek liburu oso bat idazteko aukera emango bailuke. Hurrengo orrietan iraupeneko nekazalgoaren ekonomi portaeraren eta landa-eremuetako lurzoruaeren narriaduraren arteko loturak azaltzen saiatuko naiz. Lan honen helburua, Hirugarren Munduko iraupenezko- nekazaritza-ekonomia (INE) adibidetzat hartuz, pobreziaeren eta baliabide naturalen narriaduraren arteko ustezko lotura lineala, benetan, egiturazko harreman konplexuagoa dela azaltzea da.

FAOren definizioaren arabera, lurraeren narriadura «gaur egun edo/eta etorkizunean produzitzeko ahalmen potentziala murrizten duen prozesuari» deritzo (FAO 1977). Gizarteak eragindako berotegi-efektuarekin batera ez da ezagutzen, denboran eta intentsitatean nekazaritzaren gain hain ondorio latzik izan dezakeen beste prozesurik. Arrazoi nagusia produktibitate biotikoaren ahalmena murrizteko eraginean eta lurzoruaeren berriztatzeko gaitasunean duen eraginean datza. Hots, lurzoruaeren narriadurak, besteak beste, uzten murrizketa, ibai eta lakuen sedimentazioa, eta, oro har, uraren kalitatearen murrizketa eragiten du. Horrek guztiak, nekazaritza-ekonomia lokalen bideragarritasuna arriskuan jartzen du. Epe luzean, nekazalgoaren “bizimodu jasangarriaren” kontzeptuaz baliatuz, lurzoruaeren narriadura eta “garapen ekonomiko jasangarria” bateraezinak direla argudiatzen saiatuko naiz.

Lurzorua degradatzeko arrisku handiena duten eremu geografikoak eurijasa handikoak, aldapatsuak eta landaretza natural gabekoak dira gehienbat. Ezaugarri horiek guztiak Hirugarren Munduko nekazaritza-sistema tropikal eta subtropikaletan gertatzen dira (adibidez, Txinan, Indian eta Erdialdeko Amerikan), eta, ondorioz, hango nekazariak lurzoruaeren narriaduraeren ondorio latzenak pairatzen dituzte. Argibide esanguratsua Hego Ameriketako kasua da: alde batetik, gizarteak eragindako higadura eta, bestetik, mantenu gaien mailaren galera, lurzoruaeren narriaduraeren % 62 eta % 34ren erantzulea da hurrenez hurren (Oldeman 1990)¹.

Lan hau lau zatitan banatuta dago. Lehengo atalean, Hirugarren Munduko iraupeneko nekazaritza-ekonomia aztertzen dut. Horretarako, iraupeneko nekazariak, beste giza komunitateetatik ezberdintzen dituen ezaugarriak aipatzen dira. Bigarren goan, “herrialde azpigaratuetao” landa-eremuetako lurzoruaeren narriaduraeren arazoa orokorki deskribatzen da. Hirugarren atalak bizimodu eta garapen jasangarriaren inguruko azterketa dakar, eta, azkenik, aurreko hirurak osatzeko ahaleginetan, pobrezia eta lurzoruaeren narriaduraeren arteko lotura aztertzen dut. Amaiera gisa, artikulan agertutako zenbait puntu garrantzitsu laburki zehaztuko ditut.

* Oharra: *Iraupeneko* hitzaren esanahia bizimodu jakin bati dagokio. Lan honetan, “duintasunez” pobrea den edo “nekez bizi” den nekazariarekin eta bere ekonomi sistemarekin du zerikusia.

1. Arrazoi Hego Ameriketako lur elkorren hedadura handia da; Afrikan eta Asian lurren % 56 eta % 38 lur elkorrak izanik hurrenez-hurren, Hego Ameriketara ehuneko % 85era iristen da (Barrow 1995).

Hirugarren Munduko iraupeneko nekazaritza-ekonomia

XIX. mendetik, nekazariak giza kategoria ezberdindua zela ohartu izan zirenetik, nekazarien portaera ekonomikoei buruz ikerketa asko egin da. Antropologiak, adibidez, ez ditu nekazariak giza talde homogeneousat ulertzen eta, areago, giza erreprodukzioa helburua duen giza erlazio anitzez osatutako giza esparrua dela azpimarratzen du. Antropologia ekonomikoaren iritziz, iraupeneko nekazaria definitzen dituen ezaugarri nabarmenenak hauexek lirateke: menpeko-tasun kulturala, hertsadura politikoa, esplotazio ekonomikoa, gizabanakoen arteko mesfidantza handia, berrikuntzarako pizgarririk eza, helburu txikiak izatea, denboraren perspektiba mugatua, eta familiarteko atxikimendu handia (Wolf 1966, Rogers 1970).

Ikuspuntu ekonomiko zorrotzago baten aldetik, nekazari-etxaldea subjektu ekonomikoa den heinean, landan lan egiten duen pertsona talde bat ez ezik, langileak bezainbeste aho duen kontsumitzaile-taldea ere badela esan daiteke. INEren beste ezaugarri esanguratsu bat, familien barneko lan-indarraren antolaketa malgua da. Hots, egungo teoria ekonomikoaren ikuspuntutik urrun (mozkinak maximotu nahi duen enpresa kapitalistaren ikuspuntutik, alegia), ongizaterako oinarritzko beharrak asegabe gelditzeko arriskuen aurrean, galera ekonomikoak (mozkinak kostuak baino txikiagoak direnean) ekar dakizkiokkeen gehiegizko lan-indarra enplegatze prest legoke iraupeneko nekazalgaia.

Ellis-en (1988) ustez, Hirugarren Munduko INE, merkatu instituziotik guztiz kanpo dagoen “*ekonomia naturala*”ren eta nekazaritzako kapitalismoaren arteko trantsizioaren ondorioa litzateke. Hots, INEn, behin behineko beharren arabera, uztaren proportzio jakin bat kontsumora bideratuta dago (ekoizpenari ganbio-balioa ez ezik, erabilpen-balioa ere emanez). Beraz, iraupeneko nekazal sisteman, merkatuan parte-hartzea dakarren abantaila arriskutsuen eta irauteko beharrezkoa diren merkatuez besteko instituzioenganako atxikiaren arteko tentsioa aurki daiteke².

INE merkatu-ekonomiatik ezberdina dela konturatzeko, beste bi ezaugarri aipa daitezke: batetik, mozkinaren eta lanaren errendimendu ekonomikoaren arteko sasibatutasuna (adib. traktorea, ekoizpenerako baliabidea eta familiarentzako garraiobidea den neurrian, INEn kapitalaren errendimenduaren kontzeptu hertsia desagertarazten da), eta, bestetik, landa-eremuetan merkatu-instituzioaren funtzionamendu traketsa. Azken ezaugarri horri dagokionez, landa-eremuetan merkatu-instituzioak ondo funtzionatzen ez duen seinale argiak hurrengoak lirateke, besteak beste: ekoizpenerako beharrezkoak diren baliabideen eskuragarritasun maila txikiak, merkatu-informazioa lortzeko zailtasun gaildiezina (oinarritzko hezkuntza faltagatik, kasu), lurraren merkatu ez-librea, eta garraibideen azpiegiturarik eza.

Goian aipatutako INEren egiturazko ezaugarri batzuk aipatu ostean, zer esan daiteke gaur egungo teoria ekonomikoetan oinarritutako nekazarien jokabideaz? Bada, 1960ko eta 1970eko hamarkadetatik, eztabaida handia izan dela antropolo-

2. “Instituzioak” gizarteak ezarritako joko-arauak dira, hau da, gizakiek berek sortutako giza erlazioei egitura ematen dieten mugak dira (North 1991).

gia eta zientzia ekonomikoaren aldetik. Gakoa, nekazarien jokabide ekonomikoaren *arrazionaltasunean* (beraz nekazaria jomugan duen teoria mikroekonomikoen erabilgarritasunean) datza.

Antropologia ekonomikoan bi eskola nabarmendu dira eztabaida horri dago-kienez: eskola *substantibista* eta *formalista*, alegia. Substantibistek nekazariaren helburu materialista ezeztatzeaz gain, komunitatearenganako lotura eta elkarlanerako balioak goraipatzen dituzte. Formalistek, berriz, teoria mikroekonomikoak guztiz erabilgarriak direla diote. Theodore Schultz-ek, eskola formalistako ekonomialari nabarmenak, mikroekonomiaren ikuspuntutik, Hirugarren Munduko nekazaria “*eraginkorra baina pobrea*” delako ideia defendatzen zuen. Beraz, herri garatuetako “*homo economicus*”aren (mozkin-maximotzailea den agente ekonomiko arrazionala) kontzeptua INEn guztiz aplikagarria dela zeritzon. Ondorioz, formalisten aburuz, mozkinaren maximotzearen teoria ekonomikoetan oinarrituz, iraupeneko nekazariak kapital naturala (adib. lurra, ura, haziak, ongari organikoak) eta beste baliabide aldakorak (adib. lan-indarra) modu eraginkorrean kudeatzen ditu. Eztabaidaren aurkako frontean, berriz, James Scott antropologo substantibistak, ekonomia neoklasikoaren edota eskola formalistaren aurka, nekazariaren “*ziurtasunari lehentasuna*” ideia plazaratu zuen³. Substantibisten iritziz, nekazariak “iraupenaren etika” berezia du. Hau da, merkatu-sistemak bultzatzen duen indibidualismoaren balioaren gainera, nekazariaren berezko kolektibotasunaren balioa goraipatzen dute. Ondorioz, nekazariaren arrazionalitate ekonomikoa kulturari, historiari eta bizi den eskualde geografiko jakinari lotu behar zaio (Scott 1976).

Substantibisten eta formalisten ikusmolde kontrajarriak kontuan harturik, argi dagoena da iraupeneko nekazariak ez duela portaera ekonomiko irrazionala. Arazoa arrazionalitatearen kontzeptu hertsietan datza, hauek teoria antropologiko eta ekonomikoen paradigmen menpe baitaude. Badira nekazariaren arrazionalitate ekonomikoarekiko erdibideko interpretazioak egiten dituztenak ere. Woodgatek, adibidez, nekazariak giza erreprodukziorako beharrezkoa den errenta-maila lortzeko, kontrolpeko baliabideak (adib. lan-indarra), ekonomiako arlo ezberdinetan optimoki kudeatzen dituela dio. Hala ere, nekazariak guztiz bereganatuta ez duen merkatu-sistemaren ertzean kokatzen da.


INEn ezaugarrien arabera, beraz, nekazariaren ekonomi portaera optimizazio-teknika ekonomikoen bidez aztertzea posible dela ondoriozta daiteke (beti ere, optimizazioa mozkinen maximotze ideia hertsiaz haratago ulertu behar da). INEk dituen egiturazko ezaugarri edo murrizketak kontuan harturik, tokian tokiko nekazariaren lehentasunak deskribatzen duen ongizate-helburu konplexua litzateke nekazaritzaren arrazionalitatearen atzean dagoen ideia. Hori esanda, nekazariarentzat beharrezkoa den lurzorua (INEn kapital naturala izanik) degradatzeko arazoien azterketa zorrotzagoa egitea posible da.

3. BNEren testuinguruan, ziurtasun kontzeptuak bi esanahi ditu. Batetik, nekazaritzako ekoizpen-sistemaren uzta-maila egonkorra. Bestetik, garai txarretan gertatzen diren egoerak arintzeko, gutxienezko birbanaketa-izaera duten giza erlazioaren multzoaren garapena da.

Hirugarren Munduko landa-eremuetako lurzoruaen narriadura

Hirugarren Munduko landa-eremuan gertatzen den lurzoruaen narriaduraren ikuspegi orokorra zein den hurrengo irudian ikus daiteke. Irudiak, munduko eskualdetako nekazaritzarako lur erabilgarritik degradatuta dagoen hektarea-kopurua erakusten du. Ikus daitekeenez, Hirugarren Munduko herrialdeetako nekazaritzako eremuetan pairatzen den degradazio arazoaren dimentsioa herrialde garatuetan gertatzen dena baino larriagoa da (erlatiboki aztertuta).

1. Irudia: Nekazaritzako lurzoruaen narriadura mundu mailan



Iturria: FAO (1990) eta Oldeman (1990)


Hirugarren Munduko lurzoruaen narriaduraren erantzule nabarmenen artean hiru faktore orokor aipa daitezke: deforestazioa eta landaretxa naturalaren ezabapena, abereen gehiegizko larratzea, eta uztekin erlazioatutako nekazaritzako gain-ustiakuntza. Atal honetan, nekazaritzako gainustiakuntzaren ondorio eta zergatiak dira aztergai. Aurreko orrietan orokorki deskribatutako INEren egiturazko ezaugarriak dira lurzoruaen narriaduraren abiapuntua. Egiturazko ezaugarriek, adibidez, iraupeneko nekazariarentzat lurra eskuragarri izateko gaintitu ezinezko zailtasuna dakartzate. Lurra eskuratzeko ahalmen txikiarengatik, nekazarien populazioaren hazkuntza-maila altuarengatik, edota aleen nazioarteko prezioen beheranzko joera etengabearengatik, uzten errendimendu handiagoa lortzeko beharra sortzen da, eta, horrek gehienetan, lurzorua modu intentsiboagoan lantzerantz behartzen du. Lurren erabilera intentsiboa lan-indar edota kapital gehiago (adib. ongarri natural edo artifizialak) erabiliz lor daiteke. Hala ere, aurretik azaldutako kapital-merkatuen funtzionamendu traketsa dela eta (adib. gutxienezko mailegu-eskaintza egotea), nekazariari ezinezkoa zaio produktibitate handiko baliabideak, garestiak baitira, finantziatzea. Aukera bakarra, beraz, gehienetan etxaldeko lan-indarraren eta ohiko lanabesen erabilera-maila handitzea da. Oro har, ondorioa nekazari bakoitzeko batz besteko produktibitate-maila azkar murriztea da⁴.

4. Corniak (1985) honako lurren erabileraen intentsifikazio-erak deskribitzen ditu: (a) Uzta bakoitzean, lur-unitate bakoitzeko lan-indar gehiagoren erabilera; (b) emankortasun txikiagoko lur gehigarria erabiltzea; (c) urtean uzta behin egin beharrean, birritan edo hirutan egitea; eta (d) mekanizazio txikia behar duten lehengaiak landatzea.

Gizakiaren jardueren presioekiko “malgutasun” txikiko eta “sentiberatasun” handiko nekazaritza-ekosistemetan, lan-indarraren bitarteko luraren erabileraren intentsifikazioak mantengaien gehiegizko galera sor dezake⁵. Iraupeneko nekazariak, aipatutako eremu ahuletan bizi delako, lan-indarrak baliatutako ekoizpen intentsiboak, lurzuaren degradazio-maila handitzen duena, ekoizpen-maila ego-kia eta epe luzeko garapen ekonomikoa kolokan jartzen du.

Hurrengo irudiak lan-indarraren gehiegizko erabilerak dakarren lurzuaren emankortasunaren prozesu dinamikoa deskribatzen du:

2. Irudia. Lurzuaren emankortasuna degradazio-prozesuen ondorioz



Iturria: Riquier (1977), Pierce (1992)-tik jasoa⁶.

Lurzuaren erabilera-mota aldatzen den heinean, degradazio-prozesuak hainbat bide har ditzake: “A” prozesuak, adibidez, nekazaritza-ekosistema ahuletan, narriaduraren aurkako kontserbazio-jarduerarik ez dagoenean, lurzuaren emankortasunaren etengabeko beherakada adierazten du. Emankortasunaren murrizketa prozesu geldoagoa izan daiteke, adibidez “B” edo “D” kasuetan. Batetik, epe luzean, “B” dinamikak jatorrizkoa ez den baina emankortasun-maila positiboa duen oreka lor daitekeela adierazten du (“A”n gertatzen denarekin konparaturik, B-n nekazaritza-ekosistemak malgutasun-maila handiagoa eta sentiberatasun txikiagoa du). “D” prozesuak haxe adierazten du: lurzoru kontserbatzeko helburuarekin, nekazaritza-ekosistemarekin harmoniatsua diren ustiakuntzen bidez (adib. landare egokiak haziz, lugorria ondo ustiatuz, uztak txandakatuz), “B” dinamika baino emankortasun-oreka maila handiagoa lor daitekeela. Azkenik,

5. *Sentiberatasuna* eta *malgutasuna* ekologiatik hartutako kontzeptuak dira. *Sentiberatasuna* gizakiek duten interferentziengatik sortzen diren ondorengo naturaren indarrek lurzuaren sisteman aldakuntzak egiteko ahalmen-mailari deritza. *Malgutasuna*, bestetik, lurzoruak presioak bereganatuz bere jatorrizko oreka mantentzeko duen gaitasunari deritza.

6. $y^1 > y^2 > y^3 > y^4$ ordenatuek lurzuaren emankortasun-maila ezberdinak azaltzen dituzte.

“E” prozesuak (“agradazioa”), teknologia egokia erabiliz (adib. ongarri sintetiko eta naturalen kantitate egokia erabiliz), luraren epe luzeko emankortasuna handitzen duen prozesua adierazten du. Tamalez, aurreko atalean aipatutako INEren egiturazko ezaugarriengatik, iraupeneko nekazariaren testuinguruan, agradazioa ia inoiz gertatzen ez den egoera da.

Tropikoko INEtan A eta B motetako prozesuen atzean egon daitezkeen arrazoi batzuk aipa genitzake: hala nola, eurijasa handiek sortzen dituzten lurzorua- ren higaduraren ondorioz materia organiko asko galtzen da⁷. Ohiko golda-tzeko teknikek ere zerikusia dute; hots, goldaketan, belar txarrak kentzeko eta uraren eta airearen infiltrazioa hobetzeko ekintza izanik ere, tropikoetako lurzorua iraultzen denean, bere egitura mantentzeko funtsezkoak diren onddoen populazioa suntsitu ez ezik, gehiegizko airea eta bero handiarengatik, lurzoruan dauden mikroorganismoe- k materia organikoa azkarrago gutxiagotzen dute. Azkenik, landatzen den uztak zerikusia du higaduraren ondorioz galtzen den mantenugai-mailarekin ere: tropikoan esportaziorako bideratzen diren lehengaiak (adib. kafea, kakaoa, tea eta palmondo-olioa) ez dira zituak eta sustraidun landareak bezain kaltegarriak. Leka- leak eta sustraidun landareak lurzorua- ren narriaduraren babesleak diren bitartean, bihidun zituak lurzorua- ren narriadura gehien areagotzen duten landareak dira.

Nekazarien “bizimodu jasangarria”

Bizimodu jasangarria orokorragoa den *garapen iraunkorra* edo *jasangarria* (GJ) kontzeptuaren azpikategoria da. Nazio Batuetako Ingurumen eta Garapene- rako Mundu-Batzordearen definizioaren arabera, garapen ekonomikoa jasangarria litzateke «oraingo belaunaldien beharrak, hurrengo belaunaldienak betetzeko aukerak arriskuan jarri gabe asetzen duena» (WCED 1987). Ingurugiro-ekonomian maiz erabiltzen den interpretazio teknikoagoaren arabera, epe luzeko prozesu ekonomikoa jasangarria litzateke prozesu ekonomikoak eskaintzen duen ongiza- te-maila beherakorra ez denean. Ildo berdinetik, Perrings-en (1994) iritziz, garapen ekonomikoa jasangarria izan dadin, gizarteak ez litzuzke ekoizpenera zuzendutako baliabideak (naturalak barne) xahutu behar. Nekazaritzako lurzorua, baliabide naturala eta ekoizpenerako oinarritzako lehengaia den heinean, eta are gehiago, kapital artifizialarekiko (adib. ongarri sintetikoak) ordezkagarritasun mugatua duelako, lurzorua ez gainustiatzea litzateke GJrako oinarritzako baldintza⁸.

1992. urtean, Rio de Janeiron egindako Nazio Batuetako Ingurumen eta Gara- penerako Gailurrean “Agenda 21” dokumentua adostu zen (UNCED 1993). Agen- da 21.ek giza komunitate ororen garapen jasangarria ez ezik, gizabanakoen “bizimodu” jasangarria ere eskatzen du. Perrings-en (1994) iritziz, gizabanakoengan beharrea komunitate osoengan, eta naturaren elementu isolatuengan pentsatu beharrea, sistema ekologiko osoengan pentsatu behar litzateke garapen jasan-

7. El-Swaify-ren (1993) arabera, esate baterako, Afrika Hegoaldean, lurzorua- ren batezbesteko 50-100 MG/ha-ko higadurak eragindako Nitrogeno eta Potasio elementuen galera arto-uzta oso bat hazteko beharrezkoa den ongarri kimikoen kantitatearekin pareka daiteke.

8. Lurzorua- ren eta kapital artifizialaren ordezkagarritasun-maila txikia lurzorua- rekin erlazioa duten ziklo biotiko eta abiotikoak (adib. mantenugaien zikloa) oso konplexuak direlako da. Areago, lurzorua- ren elementu naturalak artifizialez ordezkatu nahi izanez gero, nekazaritza-ekosistema osoentzako atzeraezinak izan daitezkeen eraginak gerta daitezke.

garria praktikan jartzeko. Xedea zera da, lurzorua nekazariaren baliabide ekonomikoa izateaz gain, INE sistema osorako oinarritzakoak diren zerbitzu ekologikoak (adibidez, mantenu gaien barne-birziklatzea) eskaintzea. Lurzoruaren narriadura dela medio, Agenda 21en aburuz, nekazariaren iraupena ez litzateke jasangarria izango. Hots, lurzoruaren funtzio ekologikoak suntsituz gero, nekazariarentzat ia eskuraz ezin zaion kapital artifizialarekiko menpekotasuna handituko litzateke. Horrek pobrezia-mailan eta bizitzeko beharrezkoa den elikadura-mailan eragin handia edukiko luke. Beraz, nekazariaren bizimodua jasangaitz bilakatzeko arriskua areagotuko litzateke.

Agenda 21.en arduraren nagusietariko agente ekonomikoen jokaera aldatuz sistema ekonomikoentzat oinarritzakoak diren funtzio ekologikoen babesa lortzea da. INEri dagokionez, arduraren horrek Hirugarren Munduko nekazaritza-ekosistemen malgutasuna bermatzeko politika ekonomikoen lehenengo subjektua, iraupeneko nekazaria izatea dakar. Rioko Gailurrean, era berean, lurzoruaren narriaduraren erantzule garrantzitsuenetariko nekazariaren pobrezia-maila dela adostu zen. Agenda 21.en ustez, pobrezia eta lurzoruaren narriaduraren arteko loturen ulertzeak aldiberean nekazalgoaren bizi mailaren kalitatea handiagoa lortzeko eta baliabide naturalen kontserbaziorako politikak nola diseinatu beharko liratekeen esaten lagun dezake. Horregatik, azken atalean pobrezia eta lurzoruaren narriaduraren arteko lotura laburki azalduko dut.

Nekazariaren pobrezia eta lurzoruaren narriaduraren arteko lotura

Nekazariaren pobrezia eta lurzoruaren narriaduraren arteko loturaren hiru ikuspegi nagusi daude. Mutur batean “neomaltusianismoa”ren degradazio-pobrezia-degradazio sorgin-gurpila da nagusi (ikus adibidez: Foy eta Daly 1989, Myers 1992, eta Daily eta Ehrlich 1996). Beste muturrean, aldiz, “Boserup-en hipotesia” dago (Boserup, 1965), eta, azkenik, bien artean INE sistemaren egituretan oinarritzen den eta aurreko bi ikuspegiak batzen duena aurkitzen da (ikus adib. Blaikie 1985, Jazairy eta besteak 1992, Reardon eta Vosti 1995, eta Barbier 1997).

Ikuspegi neomaltusianoa gizarteari egokitutako *eskala* eta *zama-ahalmena* kontzeptu ekologikoetan oinarritzen da batik bat⁹. Neomaltusianoentzat pobrezia-degradazio loturaren azalpen orokorra hurrengoa litzateke: iraupeneko nekazariaren pobrezia mailak landa-eremuetako populazioaren hazkuntza dakar. Baliabide naturalen eskasia izanik, populazioaren gehiegizko hazkuntzak (gehiegizko “eskala”) lan-indarraren bidezko luraren erabileraren intentsifikazio desegokia egiteko eta lurralde desegokietara migratzeko beharra sortzen du (nekazaritza-ekosistemaren zama-ahalmena gaintuz). Horrek uzten produktibitatea murrizten du eta pobrezia maila areagotuz, azkenean “populazioaren hazkuntza - baliabideen gainustiakuntza - pobrezia” dinamika sorgin-gurpil bilakatzen delarik. Boserup-en hipotesiaren funtsa, bestalde, kontrako argudioan oinarritzen da. Boserup-en aburuz, merkatuaren abantailak guztiz eskuragarri izanik, nekazaritzako popula-

9. *Eskala* populazioaren eta baliabide naturalaren per capita-ko erabileraren arteko biderketaren bidez neurtzen den ekonomi sistemako baliabide-fluxua litzateke. Gizartearen *zama-ahalmena*, berriz, gizarte-sistema jakin batean, bertako baliabideak kontsumitzeko modua kontuan harturik, eremu geografiko batentzako bideragarria den gehienezko populazio-mailari deritzo.

zioaren hazkuntzak lurra kaltetu beharrean lurraren egoeraren hobetzea dakar. Honen arrazoi nagusia da populazioaren hazkuntzak eraginda lurraren eskasia handitzen den neurrian lur horren intentsifikazioa modu egokian bilatzen dela (adib. ongarrri naturalak zein sintetikoak hobeto erabiliz).

Muturreko bi ikuspegi horiek pobrezia eta narriaduraren arteko loturaren zenbait alderdi azaltzeko gai badira ere, atal honetan erdibideko ikuspegia azalduko dut. Hori INEren egiturazko ezaugarrietan oinarritzen da. Egiturazko ezaugarriek, nekazariaren jokaera ekonomikoan eraginez, lurzuaren gain modu jakin batzuetan eragiten dute. Ikuspuntu horrentzat, zenbait egoerak (adib. merkatu-instituzioaren funtzionamendu traketsak) pobrezia eta lurzuaren narriaduraren arteko lotura sorgin-gurpil bilaka dezakete. Horren adibidea, landa-eremuetatik kanporako migrazioaren ondorioak lirateke. Migrazio-mota hori, errenta-iturri osagarriak lortzeko ohiko estrategia da. Migrazioaren bidez, nekazari-familien lan-eskaintzaren zati bat, herri handi eta hirietako sektore informalera edo landa-eremuetako merkataritza txikira zuzenduz, landarraren bidezko lurraren intentsifikazioa arindu dezake eta lurzuaren gaineko presioa murriztu. Hala ere, migrazioaren zenbait aspektu osagarri ere kontuan hartu behar dira baliabide naturalen gaineko eraginaren norabidea zehaztu ahal izateko. Esate baterako, alde batetik, nekazari-familietako gizonezkoen migrazioak lurzuarentzat kaltegarria izan daitekeelako ebidentziak dira. Horren atzean, emakumeek familiak sostengatzeko duten rola dago. Migrazioa gertatu aurretik gizonezkoek egin ohi zituzten nekazaritza-jarduerak emakumeen eguneroko jardueri gehitzean, azken horientzako lurraren kontserbazioan eman beharreko denbora, "aukera-kostu" izugarria bilaka daiteke¹⁰. Horrek lurzoru kontserbatzeko pizgarria erabat murriz dezake. Lurra kontserbatzeko aukera-kostu handiarengatik, epe ertainean lurraren egoera okertu ez ezik, familiarren errenta-maila edo ongizatea murriz daiteke eta etxalde bereko beste kideren baten migratzeko beharra sortu. Azkenean, migrazio-degradazio-pobrezia-migrazio sorgin-gurpil bilakatuko litzateke.

Pobreziak gizabanakoengan era askotan eragiten duenez (fisikoki, moralki eta psikologikoki batik bat), eta estutasunekin erlazionatutako ezaugarri asko duenez, ezinezkoa litzateke hemen pobrezia kontzeptu zabalik eskaintzea. Hala ere, lurzuaren narriadura eta pobrezia arteko analisi eraginkorra egiteko funtsezkoa da pobrezia gutxienezko esanahia ematea. Garapen ekonomikoari dagokionez, pobrezia ongizatearen ikuspuntutik deskribatu ohi da. "Ongizate-pobrezia" neurtzeko hiru dimentsio hartzen dira kontuan: denbora (kronikoa edo behin-behinekoa), subjektua (gizabanakoak, familiak edo komunitate osoak), eta ongizate-adierazlea (adib. errenta, kontsumoa, elikadura edo osasun-maila). Ongizate-pobreziak, subjektuarengan eragiten dituen gabeziak deskribatzeko balio dezakeen arren, baliabide naturalen eta iraupeneko nekazariak pairatzen duen pobrezia arteko lotura azaltzeko mugak agertzen ditu. Lurzuaren narriadurarekin lot daitekeen pobrezia ideia garrantzitsua Perringsek (1989) eman zuen. Perringsen iritziz, pobrezia, kontsumo-maila mantentzeko, gizakiak sortutako kapitala zein kapital naturala xahutzea beharrezkoa denean gertatzen den fenomeno da. Beraz, INE gutxienezko kontsumo-maila mantentzeko lur-zorua

10. Emakumeentzako aukera-kostua adibidez, umeak zaintzeko, elikagaiak prestatzeko eta abarretako denbora murriztea litzateke.

degradatu behar izateak nekazaria pobrea dela esan nahiko luke. Rear-don-ek eta Vosti-k (1995), ildo beretik, baliabide naturalen degradazioaren eta pobreziaren arteko lotura azaltzeko "inbertsio-pobrezia" ideia erabili dute.

Inbertsio-pobrezia, «oinarrizko baliabide natural jakin baten balioa xahutu ez dadin, gutxienezko inbertsio-maila ahalbideratuko lukeen errenta-mailara iritsi ahal ez izatean» gertatzen da (Reardon eta Vosti, 1995). Pobreziaren ideia horrek ongizate-pobreak inbertsio-pobreak ere badirelako ideia dakar berarekin. Alderantzizkoa, ordea, ez da zergatik beti gertatu behar; hots, ongizate-pobrezia zehazten duen errenta baino errenta-maila handiagoa eduki arren, inbertsio-pobrezia gerta daiteke. Egoera hori, hurrengo arrazoiengatik gerta daiteke: (a) Ongizate-pobrea definiziotik at gelditzeko errenta-maila nahikoa izan arren, baliabide naturala kontserbatzeko inbertsioak egiteko beharrezkoa den errenta-maila ez edukitzeagatik; (b) ondasun nahikoa eduki arren, horiek lurzoruaren kontserbaziora zuzentzeko beharrezkoa den gutxiengo diru-likidotasuna bilaka ezin daitezkeelako; (d) likidotasuna lortu arren, gutxienezko mailegu-eskaintzaren aldetik inbertsioa aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabideak lortu ezin direlako; eta (e) Amartya Sen-ek deitutako *entitlement*-a galtzeko arriskua dagoenean, kontserbaziorako baliabideak ez bideratzea nahiago delako.¹¹

Azken egoerak berebiziko garrantzia du. Nekazariak (baliabide naturalen kontserbaziorako inbertsioak egiteko aukera eduki arren) bere bizimodua kolapsatzeko arriskuan dagoela jakinik, baliabide naturalen kontserbaziorako kontrajarriak izan daitezkeen zenbait estrategia aurrera eraman dezake (Lipton 1968, Perring 1989). Estrategia horietako bat, adibidez, lehortei ondo egokitutako (baina lurzoru azkar degrada dezakeen) landarea ekoiztea litzateke. Aipatutako arrazoren batengatik lurzoruaren kalitatea mantentzeko behar den gutxienezko inbertsio-mailara ez iristean beraz, epe ertainean, nekazariarentzat, ongizate-pobre bihurtzeko arriskua ez ezik, bizimodu ez-jasangarria izateko arriskua areagotzen da.

Inbertsio-pobreziaren ikuspegiaren gakoa, iraupeneko nekazariarentzat funtsezkoak diren baliabideen eskuragarritasun eta kontrol-maila txikiaren egiturazko arazoan oinarritzen dela esan daiteke. Egiturazko ezaugarriek nekazariaren bizimodu-mota (jasangarria edo jasangaitza) zehazten dute. Aurreko atalean aurreratu bezala, INEn luraren eskuragarritasun eta kontrol-maila murrizta lurzoruaren gainustiakuntzaren arrazoi nabarmena da. Beraz, inbertsio-pobreziarekin guztiz erlazionatuta dagoen luraren eskuragarritasun-maila txikiaren arazoaz zerbait esatea komeni da bukatu aurretik.

Jabego pribatua lurzoruaren narriaduraren aurkako bermerik onena dela esan ohi da. Lurraren jabe izateak (indibidualki edo kolektiboki, komunitateak sortutako arauen bidez), luraren kontserbazio-inbertsioek eskain dezaketen errendimendu ekonomikoak ziurtasun handiagoz bereganatu ahal izatea dakar. Ziurtasun hori gabe, zaila litzateke inork lurra era egokian ustiatzeko ganorarik edukitzea (iraupena arriskuan dagoenean, helburu nagusia, luraren gainustiakuntzak dakarren arazoetan erreparatu gabe, mozkinak epe laburrenean lortzea baita).

11. Sen-en (1981) ikuspegi ezagunetik, *entitlement* ideiak zera esan nahi du: bizirauteko gutxienezko elikadura-maila edukitzeko ziurtasuna eskaintzen duen bizimodu-mota edo giza erlazioa.

Pobreziak eraginda, ezusteko larrialdiak gertatzen direnean (adib. gaixotasunak, uzta txarrak, hondamendi naturalak) eta lurzoruari egin dakioken kaltearen jakinean egon arren, epe laburrean lurra eman dezakeen gutzia xahutuz, lurzorua gainustiatzea da gelditzen den aukera bakarrenetarikoa (Kelly eta Githinji 1996).

Lur hedadura handiagoa eta kalitate hobekoa eskuratzeko aukera urriak, landa-eremuetan lur-merkatuak existitzen ez direlako edo ez-osoak direlako gertatzen da batez ere. INEren ezaugarri horrek iraupeneko nekazariak lurjabe handiekin lur berriak eskuratzeko konkurrentzian ezin ibiltzea dakar. Horren ondorioz, bitan zatikatutako sasilurraren merkatua sortzen da. Hots, lurjabe handien botere ekonomiko eta politikoaren eraginez, kalitatezko eta hedadura handiko lurra kontrolatzen dituzte, eta iraupeneko nekazariak berriz, kalitate eskaseko lur-zati txikiak eskuratzeko edo mugaldeko eremuetara migratuz lurra kolonizatzen ahalegintzea beste aukerarik ez du (Barbier 1997)¹².

Esan bezala, INEren lurra eskuragarritasun-maila txikiaren beste arrazoi garrantzitsu bat, instituzio ofizialetatik maileguak jasotzeko zailtasun ikaragarria da. Baldintza egokiko maileguak normalean lurjabe handien eliteak lortzen dituzenez, nekazariak interes-tasa izugarriak erdiesten duten lukurreroengana jo behar dute¹³. Maileguak jaso ezinik, epe laburreko une latzak direla eta, diru-likidotasunaren beharrez (eta lukurreroen menpe ez gelditzearen), iraupeneko nekazaria, maiz, lurjabe handiei bere lur-apurrak saldu beharrean aurkitzen da. Horrek Dasguptaren (1993) aburuz, lurzorua kontserbatzeko pizgarriak gutxitzea dakar, lurrik gabeko nekazaria, lurjabe handien laborari bilakatzen denean, lurrekiko izan zezakeen atxikimendua gutxitzen baita.

Konklusioak

Azken atalean, herrialde azpigaratuetako nekazariaren eta bere kapital natural kritikoa den lurra nariaduraren arteko lotura ulertzeko, "inbertsio-pobrezia" kontzeptuan oinarritu naiz. Pobreziaren nozio horrek INEren egiturazko ezaugarriekin (adib. lurra eta maileguen merkatu zatikatua) zerikusi nabarmena duela azaltzen saiatu naiz. Laburbilduz, egiturazko elementu horiek, errenta-maila handitzeko oztopo handiak diren neurrian, nekazariaren bizimodua jasangaitza bihurtzeko arriskua handitzen dutela ondoriozta genezake, lurzoruan inbertsiorik egin ezinik, bizirauteko funtsezkoa zaien baliabide naturalak larriki xahutu daitezkeelako. Beraz, garapen jasangarria errealitate bihurtzeko, INE-ren ezaugarri bereziak oso kontuan hartu behar dira politika sozial eta ekonomikoak diseinatuzko orduan.

12. Herrialde batzuetan nekazaritzaren ekoizpena handitzeko helburuarekin, lurra banaketari buruzko erreformak egin badira ere, ez dute iraupeneko nekazariaren egoera benetan hobetu, batez ere lursail handien jabeek osatzen duten "elitearen" pribilegioekin amaitzea politikoki oso zaila baita (Heath et al. 1996). Are gehiago, lur-erreforma egin ez den herrialde batzuetan (adib. Etiopia, Guatemala, Pakistan eta Bangladesh) lurjabe handien eta nekazarien arteko lur-jabetzaren ezberdintasuna handitu egin da azken urteotan (ikus Jazairy et al. 1992).

13. Barbier-en (1997) arabera, landa-inguruetan eskaintzen den mailegu-kopurua kontuan harturik, nekazariak eskuratzeko lortzen duen maileguen ehunekoa % 3tik % 20ra bitartekoa da besterik ez. Areago, Hirugarren Munduko herrialde batzuetako nekazariak jasan behar dituzten interes-tasen adibide batzuk hauek dira: Honduras (% 24-60), Dominikar Errepublika (% 36-240), Haiti (% 24-240), Costa Rica (% 36-50), Bangladesh (>% 100), Txile, Etiopia, Ghana, Malaysia eta Mexiko (>% 50) (Jazairy et al. 1992).

Horrez gain, artikuluan zehar, nekazarien egoera eta lurzoruaren narriaduraren lotura aztertzeko, gutxitan aipatzen den aspektu bat ekarri dut gogora, INE-ren arrazionalitate ekonomikoa hain zuzen ere. INEn, arriskuak ugariak, informazioa urria eta kanpo-faktore kontrolaezinak dauden heinean, nekazarien arrazionalitate ekonomikoa ulertzeko ziurtasun pertsonala eta etxaldearen egonkortasuna bezalako hainbat elementu kontuan hartu behar da. Hirugarren Munduko landa-eremuetan lurzoruaren narriadura hain arazo ekonomiko konplexua izatearen arrazoia INEn gertatzen diren ekonomi portaera berezia guztiz kontuan hartzen ez delako da. Areago, arrazionaltasun-konplexu horrek herri garatueto nekazarien baitan egon daitekeenarekin zerikusi ezberdina duenez, herrialde garatueto landa-eremuetan lurzoruaren narriaduraren aurka aplikagarriak izan daitezkeen teoria ekonomiko eta praktika agronomikoak hertsiegiak eta zentzugabeak bilakatuko lirakeke INEren testuinguruan.

Lan honetatik irakurleak atera dezakeen beste ondorioa hauxe da: Hirugarren Munduko landa-inguruan benetako garapen jasangarria lortzeko, ekonomi zientziak, beste giza zientzien laguntza izateaz gain, ekologia bidai lagun izan behar du. Ekonomia eta ekologia garapen jasangarria lortzeko osagarriak direla ikusten saiatzen ez garen heinean, Hirugarren Munduko landa-eremuetako pobrezia eta baliabide naturalen narriaduraren arazoak ulertzeko nahia, zoritxarrez, horretan geldituko den arriskua dago, hau da, nahi hutsean alegia.

Bibliografia

- Barbier, E.B., (1997): "The economic determinants of land degradation in developing countries", *Phil. Trans. R. Soc. Lond.* 352, 891-899.
- Barrow, C.J., (1995): *Developing the environment; Problems and Management*, Longman Scientific & Technical.
- Blaikie, P., (1985): *The political economy of soil erosion in developing countries*, Longman Development Studies, London.
- Boserup, E. (1965): *The Conditions of Agricultural Growth*, George Allen and Unwin, London.
- Cornia, G.A., (1985): "Farm Size, land yields and the agricultural production function: An analysis for fifteen developing countries", *World Development*, 13 (4), 513-534.
- Daily, G. C. eta Ehrlich, P. R., (1996): "Socioeconomic equity, sustainability and earth's carrying capacity", *Ecological Application*, 6 (4), 991-1001.
- Dasgupta, P. S., (1993): *An inquiry into well being and destitution*, Clarendon Press, Oxford.
- El-Swaify, S.A., (1993): "Soil erosion and conservation in the humid tropics", in Pimentel, D. (arg.), *World soil erosion and Conservation*, Cambridge University Press.
- Ellis, F., (1988): *Peasant economics; Farm households and agrarian development*, Cambridge University Press.
- FAO, (1977): *Assessing Soil Degradation*, (FAO Soils Bulletin 34. zkia), FAO, Erroma.
- , (1990): *1990-1995 Production Yearbook. FAO Statistical Series*, 94. zkia. FAO, Erroma.
- Foy, G. eta Daly, H., (1989): *Allocation, Distribution and scale as determinants of environmental degradation: case studies of Haiti, El Salvador and Costa Rica*, World Bank Environment Department Working Paper, 19.
- Heath, J. & Binswanger, H., (1996): "Natural resource degradation effects of poverty and population growth are largely policy-induced: the case of Colombia", *Environment and Development Economics*, 1, 65-83.

- Jazairy, I., Mohiuddin, A. eta Pannucio, T., (1992): *The state of the world rural poverty. An inquiry into its causes and consequences*, International Fund for Agricultural Development (IFAD), University Press, New York.
- Kelly, T.J. eta Ghithinji, M.W., (1994): "Los vínculos entre el deterioro del medio ambiente y la pobreza", *Frontera Norte*, 6 (1).
- Lipton, M., (1968): "The theory of the optimizing peasant", *Journal of Development Studies*, 4 (3), 327-351.
- Myers, N., (1992): "Population/Environment linkages: Discontinuities ahead", *AMBIO*, 21 (1).
- North, D.C. (1991): "Institutions", *Journal of Economic Perspectives*, 5.
- Oldeman, L.R, Hakkeling R.T.A. eta Sombroek, W.G., (1990): *World map of the status of Human induced soil degradation*, UNEP.
- Perrings, C., (1989): "An optimal path to extinction? Poverty and resource degradation in the open agrarian economy", *Journal of Development Economics*, 30, 1-24.
- , (1994): "Sustainable livelihoods and environmentally sound technology", *International Labour Review*, 133 (3), 305-326.
- Pierce, J.T., (1992): *The food resource*, Longman Scientific & Technical, New York.
- Reardon, T. eta Vosti S.A., (1995): "Links between rural poverty and the environment in developing countries: Asset categories and investment poverty", *World Development*, 23 (9), 1495-1506.
- Rogers, E.M., (1970): "Motivations, values, and attitudes of subsistence farmers: Towards a subculture of peasantry", in Wharton, C.R. (arg.), *Subsistence Agriculture and economic development*, Frank Cass & Co.
- Sen, A.K., *Poverty and Famines: An essay on Entitlement and Deprivation*, Claredon Press, Oxford.
- Scott, J.C., (1976): *The moral economy of the peasant rebellion and subsistence in in Southern Asia*, Yale University Press, New Haven.
- UNCED, (1993): *Agenda 21: The united Nations Programme of Action from Rio*, United Nations, New York
- Wolf, E. R., (1966): *Peasants. Foundations of Modern Anthropology*, Prentice Hall, Inc. New Jersey.
- Woodgate, G.: "Campesinos society and nature: Some theoretical considerations", Wye College, University of London.
- World Comission on Environment and Development (WCED), (1987): *Our Common Future*, Oxford Univ. Press, Oxford, Nairobi.